

AHOZKOA LANDU

Utzi neskak bakean!

Kattin: Ene gelan, bada Julen izeneko mutiko bat. Ez dut gehiago jasaten!

Oskar: Baia? Zer egin dizu hainbeste **HASTIO** izateko?

Kattin: Egia erran, franko ahalkegarri da horren aipatzea... Gertatzen dena da, zinezko **SEXU MANIAKO** bat bezala portatzen dela!

Oskar: Zer erran nahi duzu horrekin?

Kattin: Hasteko, kirola aitzin aldatzen garelarik, **beti entseatzen da nesken aldageletara sartzera!**

Oskar: Baina, irakasleak ez du deus erraten hori gertatzen delarik?

Kattin: Bai, bistan da, jadanik erasiatua izan da. Arazoa da, gainera, etengabe ene **NARDATZEN** aritzen dela. **Beti ene gibeletik dabil, eta komunetara ere segitzen nau.** Ez dakit gehiago zer egin!

Oskar: Ene aholkua nahi baldin baduzu, ez duzu egoera hori horrela jasan behar. Duela zenbait urte, 5. urteko mutiko batek ene lehenkusina nardatzen zuen, eta beti entseatzen zen haren gona altxatzera. Egun batez, musu eman zion, **BORTXAKA.**

Kattin: Berk!!! Eta zer egin zuen zure lehenkusinak?

Oskar: Zarta bat eman zion, eta mutikoa biziki urduri jarri zen. Ondorioz, neska beldur zen berriz hasiko zela. **Heldu bati aipatu nahiko zion, baina uste zuen nehork ez zuela sinetsiko.**

Kattin: Eta orduan?

Oskar: **Lehenik bere aitamei aipatu zien eta hauek irakaslearen eta zuzendariaren ikustera joan ziren.** Mutikoa zigortua izan zen eta ez zen sekula berriz hasi. Ene lehenkusinaren kontra kexu zen, baina sobera ahalke zen deusen egiteko.

Kattin: Ez zitekeen aise horren aipatzea, baina nik uste dut berehala joanen naizela ene burasoei erratera!

Oskar: Ikusiko duzu, hobeki sentituko zara.

Kattin: Agian bai!

Itzulpena: Maialen Bidegain

antzerkitxoak: elkar-bizitza

